

Aretxabaleta,  
1992ko ekainak 18

# Aretxagazeta



## Aurten ere San Juan


• 6. margo  
lehiaketa

• Atxabaltartua:  
Manolo Acosta

• Udako  
ikastaroak

8 zka.





Azken urteotan, munduan aldaketa kultural handiak eman dira, orain belaunaldi edo jenerazio izenez gogoratzen ditugu-

## 67ko jenerazioa

nak: ( 98, 27, 68, e.a.)

Aretxabaletak ere euki ditu bere aldaketa kulturalak, eta behar bada, aldaketarik haundiena eta guretako gertuago geratzen dena 67ko belaunaldiarena izan da. Nire anaia gazteenak (1967an urte bat zeukan) bere anaia nagusien umetako kontuak entzuten dituenean, aiton-amonek lobei kontetan dizkieten moduko ipuinak direla pentsetan du.

Izan ere, 1967an, Aretxabaletan trena geneukan eta erabili egiten genuen.

Musika banda geneukan eta domeka arratsal-

deetan plazan dantzan egiten zen.

Erreka inguruan sarri jolasten genuen, urte hartan oraindik kangrejoren bat geratzen zen eta ura nahiko garbi zegoen.

Ikastolak martxan hasita zeuden, baina 67rarte ume guztiok eskola publikotik pasetan ginen (pasatu beharra geneukan), eta urte hartararte eskolara formatuta sartzen zen, eta errejimen zaharreko kantuak ikasten ziren, goizetan bandera jasoten zen eta noizean behin, sasoi hartako umeen nutrizioa hobetzeko, hauts-esnea banatzen zen.

Gaur egun, 25 urte beranduago, Euskadiren etorkizunerako trenaren komenigarritasunaz dihardugu, musika banda berria gertatzen gabiltza, errekarren berreskurapenerako proiektuak daude eta ikastolak publiko egin gura dira.

Hori denori lortutakoan, 67ko belaunaldia errekuerto berri bat baino ez da izango, eta bitartean, sekula galdu behar ez genuen hura berreskuratzen jarraituko dugu eta sekula ezagutu behar ez genuena ahazten saiatuko gara.

"Aretxabaletak ere euki ditu bere aldaketa kulturalak, eta behar bada, aldaketarik haundiena 67ko belaunaldiarena izan da"

**Jokin Antxia**  
**Aetxagazeta**  
**aldizkariaren**  
**zuzendaria**

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Ithoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Agurtzane Elkorro, **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.




# Zer daukazu esateko?



**Marian Iglesias  
(Ikaslea)**

Urkulura igoteko bidea hobeto seinalizatu behar da. Kanpotik datorren jendeak ez daki nondik joaten den eta askotan Oron agertzen dira.



**Gorka Etxabe  
(ikaslea)**

Gauza asko. Jaietan, San Migelak potentegoak egitea eta Andramaixetarako gauza gu-txiago.

Kirol arloan, gauza gehiago egitea: kanpo gehiago, instalazio gehiago...



**Josu Antxia  
(Langilea)**

Herri honetan Kulunpioak, zakarrontziak... gauza asko falta dira. Eta Udalak na nai.



**Alaitz Olabe  
(Ikaslea)**

Herri honetan ume-entzako parkeak, kolunpioak... falta dira. Patinetako pista bat ere falta da.

## KARTAK

### Udako ikastaroak

Berehala hasiko zaizkigu Udalak udartearen antolatzen dituen ikastaroak. Piraguismo, wind surf, natazioa, eskalada, squash... praktikatzeko eta ikasteko aukera emango diguten ikastaro hauek.

Orain arte sekula egin ez den ikastaro bat antolatzea proposatu nahi nioke Udalari, parapente ikastaroa alegia. Hasi-rako saltoa egiteko leku aproposa daukagu Aza-

tza auzoan Ojala ondoan dagoen maldan. Parapenteak alkilatzea ez dut uste zaila izango denik, gaur egun badauzkagu horretara dedikatzen diren enpresak. Seguru asko, arrakasta ikaragarria edukiko luke ikastaro horrek.

**J.M.F**

### Olinpiadak ateak itxita

Aldizkari eta egunkarietan irakurrita gero, ilusioz beteta, zapatu arratsaldean kiroletxera gerturatu ginen, gure nagusiak kirol desberdinek egiten ikustera.

Olinpieden ideia zoragarria zen; baina hura sorpresa kiroletxera heldu ginenean! Olinpiadak ateak itxita ziren eta hara inguratu zen inork ezin zituen Olinpiadak ikusi. Hori ikusita berriro kalera joan behar izan ge-

nuen.

Ea hurrengo olinpiadak ateak zabalik egiten diren eta olinpiada hauen oztopoa gainditzen dugun.

Besarkada bat partehartzaile guztiei.

**Zaletu bat**

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.





## 6. pintura lehiaketa

Aretxabaletako Udal Kultura Batzordeak, datorren uztailaren 5erako marrazki lehiaketa antolatu du haur eta gazte-  
txoendako.

Lehiaketa horretan edonork parte hartu dezake. "Aretxabaleta eta bere ingurua" izango da gaia. Teknika libre izango da eta egin behar diren lanak goizeko 9etatik 11etara bitartean sinatuko dira.

Irabazleendako ezarritako sariak honako hauek izango dira: 1. saria 35.000pzta eta trofeoa, 2. saria 28.000pzta eta trofeoa eta 3. saria 20.000pzta eta trofeoa. Lehenengo hiru postue-

tan sartu ez diren Atxalbatarrendako: 1. saria 16.000pzta eta trofeoa, 2. saria 8.000pzta eta trofeoa eta 3. saria 5.000pzta eta trofeoa. Gazte-  
txoek ere euren sariak izango dituzte, lehenengoak 5.000pzta, 2. ari 4.000pzta emango zaio eta herriko haurren artean lehenengo izan denari 4.000pzta eta trofeoa.

6. margo lehiaketa honetako epaimahaia artista ezagunek osatuta egongo da eta hauek hartutako erabakia arratsaldeko 7etan emango da jakitera. Sari banaketa udaletxeko erakustokian izango da.



## UDAKO, lehenengo errejionalean

Aurreko Aretxagazeta batean agertu zen bigarren errejionaleko taldeak gora igoteko esperantza handia zeukala.

Eta baita lortu ere, joan zen domekan Eibartarrak taldearen kontra irabazi eta gero, lehenengo errejionalean izango ditugu hurrengo urtean.

Ez dago bape txarto, igoera fasean 21 urtetik beherako talde bakarra izan dela kontutan hartzen badugu. Euren aurretik bakarrik Zestona taldea geratu da.

Taldea igaz hasi zen martxan, gazte mailatik

urteten zuten jokalariek jokaketako aukera izan zezaten. Igazko helburua mailara egokitzea bazen, aurtengo tenporadan igotea zen euren asmoa.

Denboraldia ez zuten oso ondo hasi, baina tenporadaren bigarren zati on bat eginda gero, samur lortu zuten bigarren postua eta promozio fasean ondo jokatu dute, garaipen inportanteak lortuaz. Horrela, datorren urtean lehenengo errejionalean izango ditugu.

Zorionak taldekide guztiei.

**EXPRESS  
AKEITEGIA**

Santa kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

**JAUREGI  
OKINDEGIA**

Otalora, 10

**Aretxabaleta**



**Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria**

**ZARE**

**ARTEGINTZA**

Lezama merkatal  
zentrua, 14





## Langabetuak ez daude geldirik

Udalak Taxutu enpresa kontratatu zuen langabetuen lan poltsa egiteko. Azterketa bukatutakoan, 190 langabetu agertu ziren.

Baina Udalak ez zuen gura hura azterketa hutsean geratu zedin. Gai horrekin kezkatuta, korporazioak eta lan sustapeneko arlokoek langabetuekin kontaktuak euki gura zituzten.

Behin Taxutuk eman dako datu guztiak batuta gero, 190 pertsonak 4 taldetan banatu zituzten, euren dezberdintasunak kontutan hartuta.

Joan zen astean hasi ziren lehenengo taldearekin eta hitzaldi horiekin gauza bi adierazi gura izan zitzairen: Enplegu ikastaroak ofizio batean trebatzeko eta gero norberak bere lanpostua sortzeko egin daitezke.

Hurrengo asteetan beste taldeekin elkartuko dira, asmo bera lantzeko.

- Soldaduzkara joateko ikasketengatik atzerapena eskatu gura duten mutilek, uztailaren 24a baino lehen udaletxetik pasatu behar dute. Bertara, N.A.N aren fotokopia, ikasketa agiria, kartazal bat eta seilo bat eraman beharko dituzte.

- Azken aldian semafoeren seinalizazioan aldaketak egon dira. Udaltzaingoa esan digunez, trafikoa kontrolerako egin da aldaketa, batez ere automobilen abiadura eta umeak ohitu daitezten.

## Lapurrak gaztetxean

Azkenengo hilabetean lapurrak hiru bider sartu dira Gaztetxean. Lehenengo aldian atetik eta bigarrenean leihotik, diru lapurreta txikiak izan ziren eta egindako kalteak ere bai.

Azkenengo aldiru sartu zirenean, sarrerako atea

guztiz apurtu zuten sartzeko, argazkian ikusten den bezala. Barrukaldean ibili ziren eta hango ateko zerraila guztiak apurtu zituzten. Gainera oraingoan eramandako diru kopurua askoz handiagoa izan eiz da.

Ea lapurreta hau azkena den.

ARETXABALETAKO

GAZTETXEA. A. G. A

**SAGASTA**

**ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak  
Elektra-instalaketak

Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

**DORLA, S.A**

ARETXABALETAKO

BASABE POLIGONOA, C.O.2.3  
Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77





## Galartzako Dorre-Etxea

Aretxabaletako Udalak azken hilabeteotan, hainbat jessio eta tramite egin ditu Galartzako Dorre-Etxeari buruz, bertako jabeei lagunduaz, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean.

Azkenean lortu da Eusko Jaurlaritzarengandik erantzuna eta hauxe dio:

"... Galartzako Dorre-Etxeak interes historiko bikaina daukala eta era berean badituela indartu behar lirakekeen zenbait elementu arkitektoniko interesgarri, hala nola

harlagaitz murruiak harlanduz sendotuak eskantzuetan, gotikoan oso tipikoak diren bao apuntatu edo ojibarrak, zenbait ernal-leiho adibidez, eta gezileiho batzu."

Hori denori kontutan hartuta Eusko Jaurlaritzak, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean sartzea erabaki du. Orain monumento maila dauka eta Dorre-Etxea behar den moduan babesteko bere ingurunea ere babestu egingo da.

## Lekunberritarrak finalera

Aurreko Aretxagazeta batean agertuzen Juan Luis eta Bego Lekunberri Euskal Herriko Kantu txapelketaren finalerako sailkatu zirela.

Finala, ekainaren 28an izango da Doniba-

ne Lohitzunen, datorren domekan. Juan Luis eta Bego esperantza haundi barik joan arren, ziur gaude lan ona egingo dutela.

Ea egia den eta txapeldun bueltatzen diren.

## UDALETIK

### Inbertsioak eta proiektuak

Hirugarren emanaldi honekin Udal Aurrekontuei buruzko artikulueko azalpenak bukatutzat emango ditugu. Oraingo honetan, Udalak pentsatu dituen inbertsioak eta

proiektuak azalduko dira. Batzuk, jadanik eginda daude, besteak urtea bukatu aurretik burutu gura dituzte. Hona hemen:

• 22. Zonaldean lurrean erosketa (ibaia zuzentzeko) .....	647.000
• Bedarretako saneamenduen berriztapena eta urbanizazioa .....	27.000.000
• Herriko plazako eskaileren konponketa .....	2.000.000
• Oztopo arkitektonikoen deuseztapena .....	2.000.000
• Urbanizazio ezberdin batzu .....	2.000.000
• Aozaratzako eta Aretantzako ura ...	12.000.000
• Iturriondoko landaketa .....	2.000.000
• Bainuetxean lur mugimenduk eusteko lana .....	3.825.000
• Kanposantu berria .....	26.000.000
• Herriko plaza eta Zine margoketa .....	2.000.000
• Sailuente ermitaren konponketa .....	11.000.000
• Kiroletxean inbertsioak .....	5.500.000
• Ingurugiroa .....	1.500.000
• Bandarako musika tresnak .....	600.000
• Ballet, dantza eta yogarako tarima .....	625.000
• Aretxagazetako Ordenadorea .....	430.000
• Walki-ak .....	808.000
• Umeentzako jolasak .....	1.700.000
• Zerbitzutarako kotxea .....	900.000
• Udaletzeko seinalizazioa .....	1.500.000
• Proiektu desberdinak .....	12.350.000
GUZTIRA .....	116.385.000





# Txistulariak barrizten

Azken urteotan, Aretxabaletak txistulari talde txikia euki du eta askotan jendez justu ibili dena; hala ere, arazo guzti horiek atzean utzita konpromezu guztietan parte hartzen jarraitu dute eta ez dute konpromezu batean ere kale egin: dianak, dantzariak, kontzertuak, jaialdiak...

Paulo Otxoak (Goian Bego) utzi gintuenean, arazoa oraindik okerra-

goipini zen, eta arazoari irtenbidea aurkitu behar zitzaiola erabaki zen.

## Barrizten

Mikel Izurrategi Eskoriatzarraren laguntzaz, urrian taldeak indarberriz ekin zion lanari eta gogo handiaz gainera. Lehenengo txistua jotzen ikasi gura zutenendako deialdia egin zuten, jendea apuntatu zedin.

Taldeak egindako deialdira 13 pertsona apuntatu ziren. Sortuzen taldearen lehen helburua Gabonetan jotea zen eta lotu egin zuten. Gero Haratuzteak eta Otalazelai etorri ziren eta orain San Juanetarako eta Andramaixetarako prestatzen dabilta, horretarako martizenetan gogor saiatzen dira ensaiuetan.

Helduek ilusioz ikusten dute gaztetxoak ere

badatozela; eurentzat bidea luzea izango da; baina lortuko dute euren helburua.

## Deialdia

Irailean beste deialdi bat egin gura dute. "lazko esperientziak animatu egin gaitu eta aurrrera egin gura dugu".

Txistua joteko, zale-tasuna eta solfeo apur bat jakitea nahikoa da.

Txistua jotzen ikastea samurra ei da, ez du de-dikazio handirik eskatzen eta atsegina da, gainera beste musika aktibitate batzuekin ere konpajinatu daiteke.

Hala ere, artikulua irakurrita gero, txistulari taldean sartu edo taldea hobeto ezagutu gura duenak, taldeak daukan lokalera jo dezake, Otalora 27an, lehen kuartela zegoen lekuan.

Pauloren oroitze-penak animatu egiten ditu herriko txistulariak, txistua jotzea euren omenaldirik beroena da.

Askotan konturatzen ez bagara ere, ze izango lirarteke jaiak txistuaren soinu barik?

NOVEDADES  
**FELI**  
MODAN DAGOEN GUZTIA!

Iparragirre, 4  
Tfno: 79 21 24  
**ARETXABALETA**

**RKLI**

INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66



**OYAR**

Zaraia, 4  
Tfnoa: 79 15 70


Autoservicio  
**ANGELINES**



Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 61 42



"Aurten ere San Juan Bautista" heldu da, kantuak dioen moduan. Gutako askok San Juanetan sua eta tantaia bakarrik ditugu buruan. Baina badira Aretxabaletan beste ohitura asko egun honi lotuta. Honen barri jakin guran, herriko "espezialistarekin" egon gara: Tomas Otxoa "Gerra"rekin. Bere eskutik berreskuratu ditugure herriko usarioak.



San Juan bezperan herri gutxi izango da surik piztuko ez dutenik, egun horretan eguzkiaren eto-

## San Juan suaren inguruan usarioak dantzan

rrera, udako solstizioa, ospatzen da eta. Urteko egunik luzeena lehen eguzkiari eskaintzen zitzaion eta orain berriz, "Jesukristoren lehengusuari", San Juan Bautistari.

San Juan jaiak oso herrikoiak izaten dira. Aretxabaletan San Juan jaiak baditu bere berezitasunak. Usario horiek, batez ere baserrietan gorde dira, eta San Juanetako ohiturak mantentzen saiatu diren herritarrei esker.

San Juanetako usario zale batekin egon gara barriketan, Tomas Otxoarekin. Berak dioenez: "Jai handia izaten zen San Juan eguna. Mutikotan artajorran geundela, San

Juanen martxa entzundakoan, itxi atxurrak soloan eta mosua garbiketan etxera joaten ginen. Jai handia zen". Gerrak ez dauzka ahazteko orduko ohiturak.

### Tantaia, ez txopua

Orain herriko plazan ipinten den tantaia, lehen frontoi osteko zelai batean jarten zen alanbreroen laguntza paregabeaz eta zuloa urtero urtero egiten zen. Hazur asko apurtu da San Juanetan, tantaia botateak eta jarteak badauka bere arriskua. " Oraingo gazteek arrisku handiagoa daukate. Jakituriaz asko dira, baina lan horre-

tan ez."

Tantaia ez dauka zertan makala (txopua) izan beharrik, kontua da luzea eta zuzena izatea. Pinua ere izan liteke. Baita akazia, aretxa edo leixarra ere. Gero, puntan aza, kipula, letxuga eta berakatzak ipinten zitzaizkion. Horreik ere harrapatutakoak izaten ziren, tantaia bezala.

Lehen San Pedro bezperan kentzen zen tantaia, baina orain hori ez da horrela egiten.

### San Juan erramiletea

Kalean oso gutxi ezagutzen duen beste ohitura bat erramileteena da. Lorak batu eta sortatxo bat egiten zen etxeetan. Zenbat eta lora politagoak, hobe. Bat San Juan lorea izaten da, bestea urbebotia, gero mendian harri artean egoten diren kuku-fracak, erbasantak, serbiletak, marilokak, menda, artolanda-rea...

Erramilete hori egiten eta San Juanetan mezetara eroaten zen bedeinkaketan. Gero, baserri guztietan samur hartzeko moduan jarten zen. Zertarako? Horeia, justumixa (trumoia) eta irestua ketozetonean erramiletetik apurtxo bat hartu eta ate edo larrain aurrean ipinita, erre egiten zen, horeia uxatzeko. Esaera bat esaten zen: "Ene!, latz hasi da harrixe, baina mihetuaz doie".

Erramilete hori urte osoan egoten da baserrian eta urtero-urtero San Juanetan barriztu egiten da.

**"Mutikotan San Juanen martxa entzundakoan, itxi atxurrak soloan eta mosua garbiketan etxera joaten ginen"**



Bakoitzak bere solo muturretan erramilete zaharra erre egiten du, barria egin-  
da gero.

## Kurtza eta ira

San Juanetako beste ohituretako bat ateburuetan ipinten den kurtzarena izaten da. Euskal Herri guztian zabaldua dago horeia uxatzeko. Aretxabaletan kurtza arantza zuriaz egiten da. "Arantza kurtza egitea zaila da, bi lekua izaten da, sekula ez dazuzen faten." Kurtzaren usarioa errespetatzen duten batzuk aurreko urteetako kurtzak gorde egiten dituzte.

Beste usarioetako bat irarena izaten da. Ira ebagitzea eta kurtza egitea egunsentirako egin beharreko lanak izaten dira. Eguna argitu orduko irek ebagita eta kurtzatxoek eginda egon behar dute.

Ira berdea ate aurrean botaten da eta eguerdirako jaso. Ira bedar pobrea denez, horrela urte osorako pobretasuna uxatu gura izaten da.

Hala ere, ohitura horiek gehituaz doaz, orain gero eta gehiagok ezagutzen dituzte usario horiek. Tomas "Gerra" k dioenez: "Aguro ikasten dena, nekez ahaztu".

## Sua eta kantua

Baina San Juanetako ohiturarik nagusia suarena da. Sua izaten da jailetako protagonista.


Kalean hiru edo lau su pizten dira, eta jakina, ezagunena Herriko Plazan egiten dena izaten da. Sua ixotuta gero, herriko txistulariekin batera San Juan kantua kantetan da, gogo haundiz kantetan dena.

*"Iez ere San Juan, San Juan zan eta, aurtan ere San Juan Bautista. Jesukristoren lehengusua zan, San Juan, San Juan Bautista. Hau da egia, dana guztia konsolatutzeko mundu guztia. Ibai guztiak agortu dira, arrain gaixoak egarri. Datorren urtian mutikotxuak nun egingo dute igari? Hau da egia, dana guztia, konsolatutzeko Euskal Herria"*

Kalean su haundiak ixoketan diren bitartean, baserrietan ere, bakoitzak bere propietatean, San Juan suak egiten dira. San Juan su horiek familiarra-  
goak izaten dira.

Baserritarrek ere sua ixotutakoan San Juan kantua kantetan dute, baina beste San Juan kantu bat, diferentea:

*"San Juan dala, San Juan dala portaletainan goi-*



**Eguna argitu orduko irek ebagita eta kurtzatxoek eginda egon behar dute.**

*zean hamalau atso tronpeta jotzen zazpi astoren gainean beste hamalau, beste hamalau motroiluaren gainian Sapuak eta sugak erre garixek eta artue gorde gora, gora San Juan."*

Hala ere, baserrietan badira antzekoak diren beste bertsio batzuk.

Artikulu honetan azaldu diren zenbait ohitura herriko San Juan zaleei esker heldu dira guregana.

Igaz ere, aurtan ere eta baita datorren urtean ere, urtero barriztuko dira erramileteak Tomas bezalako herritarrek ohiturak errespetetako ardura euki dutelako.



# Manolo Acosta

## Jaenetik Atxabaltara

- **Non jaio zinen?**
- Baezan (Jaenen)
- **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**

• 56an, 30 urterekin. Andramaixetan etorri nintzen. Ordurarte Atxabaltan ez zen barrakarik ipintzen, eta ni auto-txoke batzuekin etorri nintzen. Lehenengo San Juanetan Tolosan egon ginen, gero San Martzialetan Irunen eta gero hona.


Hemen, orain farmazia dagoen lekuan, dena zelaia zen eta han ipini genituen barrakak. Hurrengo urtean etorri eta hemen geratu nintzen. Lau etorri ginen eta lau-erok bertan geratu, kotxeen jabeak bakarrik utzi genituen.

- **Etorri zinenean non hasi zinen lanean?**

• Lehenengo Agirreraren fundizioan hasi nintzen, Andramaixen ostean. Orduan ez ziren, oraingo moduan, hilabete osoko oporrak, 15 egun bakarrik izaten ziren. Gero "Ladrillos" enean eta azkenik Tubosen.

- **Zergatik geratu zinen Atxabaltan?**

• Bakarrik nengoen, ez neukan gurasorik. Nire



ama gerra bukatzean hil zen eta 7 anai-arreba geratu ginen. Anaia haundiena Valentziara joan zen, gero ni, eta poliki-poliki denok, baina han ez zegoen lanik.

Behin barraketako jabea, nire anaiak lan egiten zuen lekura joan zen, lan egiteko pertsona bat behar zuela esanez, nik lanik ez neukan eta lan hura hartu nuen. Horrela agertu nintzen Atxabaltan, hemen nengoela hau

gustatu eta bertan geratu nintzen.

- **Zure lehenengo inpresioa?**

• Oso txikia zen nire herriarekin konparatuz. Orduan Portasoleko etxe txikiak eta erdiko kalea bakarrik zeuden.

Gainera oso jende gutxi bizi zen, baserritarrek ere ez ziren herrira askotan jaisten.

- **Hasieran ze izan zen gehien kostatu zitzaizuna?**

• Lagunak egin arte. Baina berehala egin nituen. Orduan ez ginen oraingo moduan ibiltzen, lehen denok elkar agurtzen genuen katean, orain asko aldatu da. Lehen askoz samurragoa zen lagunak egitea.

- **Euskarak ze inpresio egin zizun?**

• Orduan ez zen asko egiten, beraz ez zidan inongo inpresiorik egin.

- **Zein da gehien harritu zaituen ohitura?**

• Txikiteoarena. Hemen txikiteo azkarra egiten da, han berriz, taberna batean jarrita egoten ginen arratsalde guztian. Lehen hemen taberna gutxi zegoen eta behetik goraino ibiltzen ginen txikiteatzen, Bodegaraino.

- **Zeure burua atxabaltartzat daukazu?**

• Bai, ni herrikoa sentitzen naiz. Hainbeste denboran Atxabaltan bizita... Baina herrira joatea ere gustetan zait eta han denboralditxo bat egitea.

- **Anekdotarik?**

• Ni oso gutxi esagutzen naute neure izenaz, gehienek "Valentzia" gaitzizenaz ezagutzen naute. Izen hori etorri nintzenetik daukat, herrian lehenengo aldiz etorri nintzenean denok galdetzen zidaten nondik nentorren eta nik Valentziatik erantzun, eta izen horrekin geratu nintzen.



Aurten, urteroko ohiturari jarraituaz, Aretxabaletako Kultur - Kirol Batzordeak uztail honetarako kirol iharduerak antolatuta ditu.

Orain arte antolatutako ihardueraetan, antolatzaileek diotenez, piraguismo eta wind-surf-ek arrakasta handia euki dute eta euren ustetan beste ikastaroetan oso jende gutxi hartzen du parte. Beraz antolatzaileek beste ikastaroak bultzatu gura dituzte eta horregatik ikastaroetatik aparte, txapelketak ere antolatuko dira.

Ikastaroak urteroko moduan, piraguismo, tenis, batminton, mountain bike irteerak, eskalada, es-



Ekainaren 26an arratsaldeko 7etan U.D.Aren batzar orokorra izango da udaletxean pleno aretoan. Denboraldiaren balantzea, aurrekontuak eta asmoak izango dira aztergai.

Joan zen eguakotxean hiru handiak egitera 30 lagunek urten zuten Murruxotik. Azkenean, bostek bakarrik bukatu zuten.

Pala txapelketako semifinalak Kiroletxean izango dira zapatuan 10etan Azkoitia anaiak - Berasaluze, Txustiren kontra. 11etan Uribetxebarria, Agirre - Unanue, Armendiaren aurka.

## Kirol ikastaroak martxan

peologia eta igeriketa izango dira. Ikastarohoriek bi txandatan egingo dira, uztailaren 1etik-14era eta 16tik-29ra. Mountain bike irteerak astean hiru egunetan izango dira, eta eskalada eta espeologia uztailaren zehar egingo dira.

Kirol horietan parte hartzeko, txapelketak ere

antolatu dituzte, ping-pong, pilota eta squash. Ping-pong eta pilota txapelketa uztailaren zehar egingo da eta bi taldetan banatuko dira, 12 urterartekoendako eta 13 urtetik gorakoendako. Squash txapelketa helduendako izango da.

Kirol iharduera horie-

tan izen emateko epea ekainaren 12tik 26ra izango da, Aretxabaletako Kultur Etxean 12etatik ordu batetara goizean eta arratsaldean 4retatik 6etara. Informazio gehiago gura duenak telefono honetara deitu dezake: 79 01 05.



**ERREKABARREN  
MEREKATAL ZENTRUA  
ARETXABALETA**





**B**atetik V. mendeurrena, bestetik "América y los Vascos", eta guzti horren azpian konkista kutsuko ekintzak, nahiz eta kultura jantzia jarri guran ibili.

Oraingo honetan, orri honetara dakargun

pertsonaia atxalbaltar-amerikano bat da. Atxalbaltan jaio, baina bere marka Ameriketara utzi zuena. Galartzako Dorre-Etxean jaiotako **Andrés López de Galarza** "oidor" eta kapitain honek Ameriketara jo zuen.

Atxalbaltar hau ez zen konkistadorea zentzu zuzenean, ez zen gerra gizona, lege gizona baizik, jakintsu eta kultoa. Kolonbian, Tolima lurraldeetan konkretuki (Tolima=Elurraren zuri-tasuna), "Quimbayá" tribu baketsuaren artean sortu zuen herri-kanpamendua 1550.eko urriaren 15ean. "Pijao" tribuaren erasoen eraginez tokiz aldatu behar izan zuen herri hori eta inditar buruzagi ospetsu baten ohorez "**IBAGUE**" izena jarri zion, San Bonifacio de Ibagué del Valle de las Lanzas, hain zuzen ere.

Bertako inditarren

artean fama ona zuen gizon honek, esan bezala, ohizko konkistadore horietako bat ez zelako. Azkenean, eta bere soldadoek egiten zituzten barrabaskeriez nazkatu-rik eta menperatu ezinik, Bogotá-ra itzuli zen eta erregeak Santa Martako Gobernadore izendatu zuen. Handik denbora gutxira, Tunja-n agertzen zaigu bertako alargun aberats batekin ezkontuta. Bere testamentuaren partida batean, Ibagué-ko inditarrentzat 1000 peso utzi zuen.

Gauregun Ibagué-n, Tolima departamentuko hiriburuan, 400.000 biztanle bizi dira.

## ERRETRATOAREKIN JOLASEAN


• Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

**Non dago argazkian agertzen den kanpaia?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Ardantzeta)



Aurreko lehiaketaren irabazlea ANE MIREN GÜMES izan da. Zorionak!

Erantzuna: .....

• Izen-abizenak: .....

• Helbidea: .....

• Tfnoa: .....



## AMANTALAZ



Oráingo sukaldaria: Nerea Garzia

## Kafe- krema

Lau lagunentzako osagaiak:

Oso kontzentratuta dagoen basokada bat kafe disolbagarri.

6 gorringo

200gr esnegain (nata) jasoa

50 gr. azukre

2 zopa-goilarakada bainilazko irabiaki (batido)

4 barkilu

## Zelan egin:

Esnegaina kafe hotzarekin irabiatu, eta, bestetik, gorringoa azukrearekin.

Irabiaki biak nahastu eta bainila dagoera bota. Hori denori Maribainutan ("Baño Marian") ipini, 15 minututan edo eraginez. Krema 4 kopatan banatu eta hotzgailuan ordubete edo bi orduz ipini. Aterazterakoan, kopak barkilu banaz apaindu.

## TXISTEAK

## Zuzendu ezina

Zorioneko bixamona, gau guztikoa bota zuten gure bi mutilek. Bata joan zen bestearen bila, eta bigarren hau jaiki ezin.

- Baina jaiki hadi. Lanera joateko ordua dok eta...
- Ezin baina, ezin neikek zuzendu.
- Hala, tira; barriketarik barik...
- Ezin naitekeela zuzendu!

Egia zen gainera. Justu-justuan zutitzen zen, baina tentetu arren ezin zuzendu, gizonori. Deitu ei zioten medikuari, eta ez zion ezer topetan, ez.

Denak beldurtu ziren. Ez zekiten zer egin, orduan Ziriako agertu zen, herriko xeblea, gaixoa berak osatuko zuela esanez eta trankil egoteko.

Sartu zen Ziriako eta ikusi zuen gaixua; ohean etzanda.

- Zer ete daukat Ziriako?
- Ezebez; ez da ezer... erantzun zion lasai asko Ziriakok.
- Baina zelan leike...? - gure gaixoak ez zion sinistu gura.
- Ba, ezer ez; daukazuna da, alkandora gantzontzilo botoiarekin lotuta; ta jakina, zuzendu ezin.


## KOMIKIA

Micky eta Paul-

PRORROGA ESKA TZEKO ORDNA HELDU ZAIT  
ETA EZ DAIGIT ZER EGIN... INTSUMISO  
SARTUKO ORE NAIZ?



EZ BURUAR GIRA ASKO EHAN...  
EULI TXIKIENAK ERE, ASARRATZEN  
DU LEHOIRIK HANDIENA ETA.





## 19

### EGUAKOTXA

- Bertso Afaría Muru-  
Alde elkartearen.

## 20

### ZAPATUA

- Goizeko 7,30etan:  
Murruxio mendizale  
elkartearen irteera: Gi-  
puzkoako itzuliaren  
9. etapa.

- Aretxabaletako  
gaztetxean, gaueko  
11etan "Ataud Vacante"  
Tenerifeko taldearen  
kontzertua.

## 21

### DOMEKA

- Zaraia mendizale  
taldearen irteera: Aret-  
xabaletako inguruak  
ezagutzen (1. goatala) eta  
1. go Argazki Rallya.

- Zikloturisten irteera:  
Aretxabaleta - Arlaban -  
Urbina - Gasteiz - Azaze-  
ta - Aretxabaleta. (99Km).

## 23

### MARTIZENA

- SAN JUAN BEZPE-  
RA. Arratsaldeko 7retan  
hasiko dira ekintzak Ja-  
poniar bonben jaurtike-  
taz, ordu berean San Juan

bezperako Pala Txape-  
lketaren finala Kurtzeba-  
rriko frontoian, 7,30etan  
Aretxabaletako txistula-  
riekin kalejira eta buru-  
handiak egongo dira eta  
8retan Loramendi dant-  
za taldearen emanaldia.  
Gaueko 10,30etan "SAN  
JUAN SUA" eta 10etatik  
goizalderarte txintxarri  
taldearekin dantzaldia  
herriko plazan.

Eta azkenik urtero  
moduan, ohitura denez,  
19992ko Santa Ague-  
dako Mutilak tantaia ja-  
soko dute herriko plazan.

## 24

### EGUENA

- San Juan eguna -

Azatza auzoko jai egu-  
na.

## 28

### DOMEKA

- Zaraia mendi tal-  
dearen irteera: Aretxa-  
baletako inguruak eza-  
gutzen (II. atala) eta II.  
Argazki Rallya.

- Goizeko 9etan,  
Murruxio mendizale  
elkartearen irteera: De-  
gurixa Mendiaren gar-  
biketa.

- Zikloturisten irtee-  
ra: Aretxabaleta -  
Kanpantzar - Durango -  
Mañaria - Urkiola. (72  
Km.)

## ARETXAZOKA

### Etxebizitzak

- Garaje bat salgai, Andra  
mari auzunean.  
Tfnoa: 79 47 62

- Garaje bat salgai  
Otalora, 11 kalean.  
Tfnoa: 79 47 62

- Etxebizitza alokatu nahi  
dugu. Tfnoa: 77 02 42

- Alokatzeko etxebizitza  
bila gabiltza. Tfnoa: 79  
47 00

### Lana

- Esperientzidun batek  
ingleseko klaseak eman-  
go litzuke. Interesatuak  
deitu, 79 04 95 telefo-  
nora.

- Emakume euskaldun  
bat behar da pertsona  
nagusiak zaintzeko  
Atxabaltan. Interesatuak  
dei egin, 10etatik 12eta-  
ra 79 55 02 tfnora.

### Salerosketak

- Bi gela bikoitzeako kan-  
ping-denda salgai.  
Abanze handiz, pasiloa  
eta guztiz. Dei egin  
8etatik 10etara 79 56 06  
tfnora.

- "Makario" markako  
egoera honean dagoen  
korredorezko bizikleta  
bat saltzen da. Oso mer-  
ke.  
Tfnoa: 79 97 88

**Orrialde  
honetako  
iragarkiak ( lana,  
etxebizitza,  
salerosketak eta  
abar) debalde  
dira. Testua  
idatzi eta bidali  
gure bulegoetara  
edo 151  
postakutxatilara.**



# PUBLIZITATEA

  
  
  
**GARAGE**  
**OSKAR**  
Basabe poligonoa  
A - 2 - 4  
Tfnoa: 79 98 74

**ZARAIA TABERNA**  
GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN  
*MANTEKA*  
*ANAIAK*

**BASABE**  
**JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoa: 79 31 84

**GARAGE**  
" EDER "

---

**Karrozeria**  
**mekanikoa**

---

IBARRA S/N  
Tfnoa: 791666  
**ARETXABALETA**

**Mobiliario**  
**ARENZA**  
ALTZARIAK  
DISENUA  
APAINKETA  
BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA



**EROSKI**  
Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.  
DURANA ETA ARALAR KALEAN  
Tfno: 79 16 05



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa: 79 79 79  
**ARETXABALETA**



**NERIAN**  
Loradenda  
Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66

**К И Х О Р**  
AKEITEGIA  
MITARTE, 3  
Tfnoa: 77 10 81  
**ARETXABALETA**



**ARRIZABALAGA**  
**ARROZTEGIA**  
Sukaldeko altzairu eta armairu enpotratuak  
Tfnoa: 79 49 73 **ARETXABALETA**

*Uozkidegi, S.L.*  
**GOZODENDA**  
**eta IZOZKIDENDA**  
Otalora Kalea, 4  
Tfnoa: 77 13 57



**IBARRA ESTANKOA**  
TABAKO, IKAS MATERIALA ETA ZERGA  
IMPRIMAKIEN SALMENTA  
Bizkaia, 3  
Tfnoa: 79 23 77  
**ARETXABALETA**



Basabe poligonoa  
A - 15  
Tfnoa: 79 34 28



*Bere Bezeroen zerbitzura*  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72



# NI EUSKARAREN MUGA?



" Euskara euskaldunok lortu beharreko gutxienezko helburua da "

*Antonio Guisado*

" Galego, katalana, euskara... herri bakoitzak ditu bere kultura, ohitura, hizkuntza. Ikas itzazu."

*Elena Vazquez*



**EUSKARAK EZ DU MUGARIK, NORBERAK JARTZEN DIONA BAIZIK. EUSKARARI BIZKARRA EMATEN DIONA DA HEMEN MUGARIK ITXIENA ATE JOKA DABILTZAN ETA EUSKALDUN IZAN GURA DUTEN ATXABALTARRENDAKO.**

**beinke**  
Atxabaltan  
euskaraz!!!